


1 > KAIXO!



aisa

AURKIBIDEA**1. Sarrera**

1. Irakaslearentzako oharrak.....	2
2. Ikastunitatearen ibilbidea.....	3
3. Ikastunitatearen edukiak eta helburuak	4

2. Atazak

A Ataza: Ongi etorri Euskal Herrira!.....	5
B Ataza: Izenak	6
C Ataza: Agurrak	9
D Ataza: Jatorriak.....	11

3. Eranskinak

1. Bideo-pasarteak	13
--------------------------	----

4. Material osagarriak

B Ataza: Izenak	
1. Ikasleen zerrenda	16
D. Ataza: Jatorriak	
2. Herrien izenak	17

1. Sarrera

1. IRAKASLEARENTZAKO OHARRAK

Ikastunitate hau berezia da, ikasle askorentzat hau izango baita euskararekin izango duten aurreneko harremana.

Ikasleak kultura eta gizarte-ohitura desberdinetatik datozela izan behar dugu gogoan. Zure paperak berebiziko garrantzia hartuko du, euskarak eta euskal gizarteak dituen berezitasunak azaltzeko bidea izango zaren heinean.

Hori dela eta, unitatean zehar lantzen diren hainbat ataletan erne ibili beharko duzu une oro, ikasleek beharko luketen informazio osagarria eskaintzeko estrategiak erabiliz.

Ikastunitate honen hasieran ikasleek Euskal Herria nolakoa den ikusteko aukera izango dute bideo-pasarte baten bitartez. Euskal Herriaren ahalik eta irudirik errealena ematea da helburu nagusia, bertako hiri eta herriak, paisaia desberdinak... aurkeztuz.

A atazan, hainbat euskal izen ahoskatzen ikasiko dute, baita euskal grafiaren eta fonetikaren oinarritzko berezitasunak ezagutu ere. Egitura sinpleak oinarritzat hartuta, ikasleek beren izena esaten eta ikaskideak ezagutzen hasiko dira.


B atazan, berriz, ohiko agurrak eta agurtzeko keinuak ezagutuko dituzte: egunean zehar erabiltzen diren agurrak egokitasunez erabiltzeko estrategiak izango dituzte.

Ikasleek beren jatorria adierazten ikasiko dute **C atazan**. Era berean, Euskal Herriko egitura administratiboa, herrien izenak eta kokapena ikusiko dituzte.

Ikasleei ondoko aukerak emango zaizkie **material osagarrien** bitartez: batetik, euskaraz uste dutena baino hitz gehiago ezagutzen dituztela ohartarazteko; eta, bestetik, ulertzen ez dituzten hitzen esanahia galdetzen ikasteko.

2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA

OSAGARRIAK



3. IKASTUNITATEAREN EDUKIAK ETA HELBURUAK

HELBURU NAGUSIA

- Euskal kultura ezagutzen hastea

LEXIKOA

- Abizena, adio, agur, arratsalde on, aupa, autoa, bihar arte, dantzaria, egun on, erantzungailua, eta, Euskal Herria, gabon, gero arte, herrialdea, hitza, herria, hiria, ikaslea, irakaslea, itsasoa, izena, kaixo, kontinentea, mutila, neska, non, nongoa, ondo, ongi etorri, zer moduz...

MINTZAGAIAK

- Euskal Herriko herriak (A)
- Agurtzeko erak (C)

ELKARRERAGINA

- Nork bere buruaren aurkezpena egitea, *Ni+izena+ naiz* egitura erabiliz (B)
- Ikaskideak agurtzea, *kaixo+izena* erabiliz (B)
- Klean topo egiterakoan eta agurtzerakoan erabili ohi diren hizkuntza baliabideak eta gorputz mugimenduak ikastea (C)
- "*Ni +...koa + naiz*" egitura erabiliz, jatorria adieraztea (D)
- "*...(e)n dago*" erabiliz, bere jaioterria non dagoen adieraztea (D)

KOMUNIKAZIORAKO AZPITREBETASUNAK

- Entzundako hainbat euskal izen irakurritakoekin identifikatzea (B)
- Euskal izenak ahoskatzen trebatzea (B)
- Egunean zehar erabiltzen diren agurrak ikastea (C)
- Erantzungailua entzun eta deiak identifikatzea (C)
- Norberaren jatorria adierazten ikastea eta besteena ulertzea (D)

GRAMATIKA ETA DISKURTSOA

- Euskal grafia eta fonetika ezagutzea (B)
- Esaldiaren oinarritzko egitura ezagutzea (B)

EUSKAL KULTURA/GIZARTEA

- Euskal izenak eta abizenak (C)
- Agurtzeko ohiturak (C)
- Euskal Herriko egitura administratiboa eta herriak (D)

2. Atazak

A ATAZA: ONGI ETORRI EUSKAL HERRIRA!

25'

Helburuak:

- Euskal Herria osatzen duten zonaldeak ezagutzen hastea.

Zertan den:

- Ikasleek Euskal Herriko hiri, herriak eta paisaia desberdinak ikusteko aukera izango dute. Horrela, Euskal Herria ez dela beti berdea eta menditsua, hiriak eta herri industrialak ere badaudela ohartuko dira.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Euskal Herriko hainbat leku erakusten dituzten irudiak¹ (**1. bideo-pasartea**) ikusiko dute eta irudietan azaltzen diren herriak ezagutzen dituzten edo ez komentatuko dugu ikasleekin. (10')

Zuzenketa-orria

1	Guggenheim
2	Biasteri
3	Lekeitio
4	Gasteiz
5	Hondarribia
6	Iruñea
7	Zumaia
8	Lizarra
9	Donostia
10	Miarritze

Ataza

- Galdetu ikasleei nor bizi (izan) den itsasoaren ondoan, nor mendian edo lautadan, hiriburuetan... (5')
- Liburuan dituzten galderei erantzungo diete. (5')

Feedbacka

- Ikasleek gaztelaniaz aipatu dituzten herriak arbelean idatziko dituzu euskaraz. (5')

¹ Lau Haizetara. EITB

Helburu nagusia:

- Irakaslearen eta ikaskideen izenak ikastea.

Helburuak:

- Entzundako hainbat euskal izen irakurritakoekin identifikatzea.
- Euskal izenak ahoskatzen trebatzea.
- Nork bere buruaren aurkezpena egitea *Ni+izena+ naiz* egitura erabiliz.
- Ikaskideak agurtzea *kaixo+izena* erabiliz.

Zertan den:

- Ikasleek, hainbat euskal izen ahoskatzen ikasteaz gain, euskal grafia eta hainbat fonemen berezitasunak ezagutzeko aukera izango dute. Ondoren, beren aurkezpena egiten ikasiko dute *Ni+izena+ naiz* egitura erabiliz; horrela, ikaskideen izenak ikasiko dituzte.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea**

- Ikasleek hainbat pertsonen aurkezpenak² (**2. bideo-pasarte**) ikusiko dituzte. **(5')**

Ataza: entzundako izenak irakurritakoekin lotu

- Euren liburuan dauden argazkietako pertsonen izenak irakurriko dizkiezu ikasleei. **(2')**
- Hamalau argazkietako sei pertsonen ongietorria³ (**3. bideo-pasarte**) entzuten duten bitartean, entzundako izenak irakurritakoekin lotuko ditu ikasle bakoitzak. Kontuan izan izen guztiak ez dituztela entzungo. **(3')**

Oharra: Nahi izanez gero, bi aldiz jarriko diezu entzute-gaia.

Zuzenketa-orria

Olatz
Nerea
Jon
Leire
Gorka
Eneko

Feedbacka

- Ikasle bakoitzak ondokoarekin konprobatuko du ea berdin erantzun duen. Zalantzarik balego, zuk zeuk zuzenduko duzu egindakoa. **(5')**

Atazaostea

- Ikasleek, taldeka, taula batean idatziko dituzte argazkipean irakurritako izenak (argazkiei begiratu gabe), gizonezkoak eta emakumezkoak bereiztuz. **(5')**
- Beste euskal izenik ezagutzen duten galdetuko diegu eta zerrindari eransteko eskatuko. **(10')**

² Aurkezpenak. *BAI HORIXE!*

³ Kaixo!. *HABEK* moldatutako entzute-gaia

Zuzenketa-orria

NESKA	MUTILA
Olatz	Jon
Nerea	Gorka
Leire	Eneko
Amaia	Mikel
Ainhoa	Aitor
Nagore	Haritz
Maider	Xabier

Gramatika eta diskurtsoa: euskal grafia eta fonetika

- Fonemen arabera bildutako hainbat izen dute ikasleek euren liburuxkan. Komenta iezaiezu gainerik zein diren euskal grafia eta ahoskeraren berezitasun nagusiak. **(5')**
- Koadro bakoitzeko izenak irakurri ondoren, letra etzanez dauden izenak (ikasleek ez dituztenak) irakurriko dizkiezu, ikasleek dagokion koadroan idatz ditzaten. **(5')**

H	TX	X	K
HARITZ	ANTXON	XABIER	ENEKO
AINHOA	ARANTXA	UNAX	MIKEL
OIHANE	TXOMIN	XALBADOR	GORKA
HUR
NAHIA	<i>KONTXI</i>	<i>UXUE</i>	<i>KARMELE</i>
	<i>TXEMA</i>	<i>XUBAN</i>	KOLDO

TZ	J	I	Z
HARITZ	JON	AMAIA	ILAZKI
OLATZ	JULENE	SAIOA	GAIZKA
URTZI	JAKES	IDOIA	IZARO
.....
<i>ITZIAR</i>	<i>JOKIN</i>	<i>NAIARA</i>	<i>ALAZNE</i>
<i>EGOITZ</i>	<i>JAGOBA</i>	<i>IRAIA</i>	<i>GARAZI</i>

- Letra etzaneakoak arbelean idatziko dituzu, ikasleek ozenki irakur ditzaten. **(5')**

2

Atazaurrea

- Hainbat pertsonen aurkezpenak⁴ (**4. bideo-pasartea**) ikusiko dituzte ikasleek. Liburuan dituzten argazkietan pertsona horien izenak idatzita dituzte, bat ezik (MIKEL ZABALA). Ikasleek pertsona horren izena idatziko dute bideoa ikusi ondoren. **(5')**
- Ikasleei izena galdetuko diezu, beheko ereduari jarraituz; eta beraiek erudian bezala erantzun beharko dizute. **(5')**

ZU: Nor zara zu?

IKASLEA: Ni Virginia Gomez naiz

Ataza: ikaskideen izenak ikasi

- Ikasleak ikasgelan ibiliko dira nork bere aurkezpena eginez eta ikaskideei "Nor zara zu?" galdetuz. Entzundako izenak ikasi eta liburuxkan idatziko dituzte. **(10')**

⁴ Dantzariak. *BAI HORIXE!*

Feedbacka

- Ikasle batek ikaskideen izenak esango ditu eta zuk arbelean idatziko dituzu, grafiari eta fonetikari garrantzi berezia eskainiz. (5')

Atazaostea

- Ikasleek "Kaixo + izena" egitura erabiliko dute ikaskideak agurtzeko, ikasitako izenak praktikatzuz. (5')

IRAK. LIB. 4.1.

IK. LIB. 4.1.

**Izen-abizenak lantzen jarraitzeko aukera
dago material osagarrietan ikasleen
zerrenda izeneko atazan.**

Helburu nagusia:

- Agurtzen ikastea.

Helburuak:

- Kalean topo egiterakoan eta agurtzerakoan erabili ohi diren hizkuntza baliabideak eta gorputz mugimenduak ikastea.
- Egunean zehar erabiltzen diren agurrak ikastea (*egun on, arratsalde on, gabon*).
- Erantzungailua entzun eta deiak identifikatzea.

Zertan den:

- Hainbat agur ikusiko dituzte. Sailkapena egin ondoren, kalean topo egiterakoan erabiltzen diren agurrak errepikatuz, egoerak antzeztuko dituzte. Ondoren, erantzungailua entzungo dute eta deiak identifikatuko dituzte.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ikasleek liburuxkan dituzten munduko agur ezberdinenetatik euren kulturarekin antzekotasun handiena duen agur-mota aukeratuko dute. **(2')**
- Euskal agurrak⁵ (**5. bideo-pasarte**) ikusiko dituzte. Ikasleek agur horiek bi taldetan sailkatuko dituzte, hasierako agurrak eta amaierakoak, eta taulan idatziko. **(5')**

Zuzenketa-orria

HASIERAKOAK	AMAIERAKOAK
Aupa! Kaixo! Zer moduz?	Agur! Gero arte!

- Ataza aurkeztuko diegu, ikasle batekin elkarrizketa antzeztuz. **(5')**

Ataza: ikaskideak agurtu

- Ikasleak zutitu egingo dira eta, ikaskideekin topo egiten dutenean, beheko elkarrizketaren antzekoa antzeztuko dute, ikasitako gorputz mugimenduak erabiliz. **(10')**

Elkarrizketa	Gorputz mugimenduak
- Aupa! + ikaskidearen izena - Zer moduz? - Ondo! - Bueno, gero arte!	Bizkarrekoa, eskua, burua, musuak...

Feedbacka

- Ahoskerari erreparatuko diozu.

⁵ Agurrak. *BAI HORIXE!*

2

Atazaurrea

- **6. bideo-pasartean**⁶ "egun on", "arratsalde on" eta "gabon" agurren erabilera ezagutuko dute. Liburuxkan dituzten irudietan agurrak kokatuko dituzte. **(5')**
- Ikasleekin euren kulturaren egiten den agurren banaketaz hitz egingo dugu: ea goizez, eguerdiz, arratsaldez eta gauz agur-mota desberdinak erabiltzen diren, nola esaten diren... **(15')**

Zuzenketa-orria

IRUDIA	AGURRA
1	Gabon!
2	Egun on!
3	Gabon!
4	Egun on!
5	Arratsalde on!
6	Gabon!
7	Arratsalde on!

Ataza: deiak entzun eta oharrak hartu

- Ikasleek lagun baten erantzungailuan⁷ (**7. bideo-pasartea**) utzitako hainbat dei entzun eta oharrak hartuko dituzte: nork deitu duen eta zein agur erabili duen, alegia. **(10')**

Zuzenketa-orria

IZENA	HASIERAKO AGURRA	AMAIERAKO AGURRA
Gorka	Egun on!	Bueno, agur!
Miren	Arratsalde on!	Gero arte!
Eneko	Kaixo!	Adio!
Maidar	Gabon!	Agur!

Feedbacka


- Ikasle bakoitzak ondokoarekin konprobatuko du egindakoa. **(5')**

Atazaostea

- Ikasleek egoera⁸ bat (**8. bideo-pasartea**) ikusiko dute: erreginari agur egiteko modu komikoa. **(5')**
- Bideoa aitzakiatzat hartuta, euren kulturaren agur formalak nola egiten diren galdetuko diezu eta, ahal bada, antzetzeko eskatuko. **(5')**

⁶ Eguneko agurrak. *BAI HORIXE!*

⁷ HABEK moldatutako entzute-gaia

⁸ Erreginaren bisita.  691

Helburu nagusia:

- Norberaren jatorria adierazten ikastea eta besteean ulertzea.

Helburuak:

- Euskal herriko herri esanguratsuak ezagutzea.
- Euskal Herriko egitura administratiboa ezagutzea.
- "Ni +...koa + naiz" egitura erabiliz, jatorria adieraztea.
- "...(e)n dago" erabiliz, bere jaioterria non dagoen adieraztea.

Zertan den:

- Euskal Herriko mapa eta herriak ezagutuko dituzte eta, bide batez, oinarrizko egitura administratiboaz jabetuko dira. Ikasle bakoitzak bere burua aurkeztean, jatorria adierazten ikasiko du.

PROZEDURA:**1****Atazaurrea**

- Hiru etorkinen aurkezpena⁹ (**9. bideo-pasartea**) ikusiko dute. Izenak entzunda, nongoak diren asmatu behar dute: Europa, Asia, Afrikakoak... Etorkin horien egoera komentatuko dugu ikasleekin: Euskal Herrian bizi dira, euskaraz badakite... **(5')**

Zuzenketa-orria

IZENA	JATORRIA
Najat Kaanache	Afrika (Maroko)
Shahid-Raza Mehasi	Asia (Pakistan)
Khadim Fall	Afrika (Senegal)


- Euskal Herriko mapa ikusiko dute eta bertako hiriburuak eta hainbat herri esanguratsu ere ezagutuko dituzte. Era berean, Kantauri Itsasoa eta Europan duen kokapena ikusiko dute. **(5')**
- Euskal Herriaren kokapena eta bere egitura administratiboa azalduko diegu, baita marrazkian azaltzen diren herriei buruz hitz egin ere. **(5')**

Ataza

- Zeure buruaren aurkezpena egingo diezu, "*Ni Bego naiz eta Lazkaokoa naiz*" bezalako esaldia erabiliz. Mapan adieraziko duzu zure herria non dagoen. **(2')**
- Ikasleek ikaslearen liburuko argazkiak ikusi eta aurkezpenak irakurriko dituzte: Euskal Herriko hainbat biztanle dira eta nongoak diren esaten dute. **(3')**
- Hutsik dagoen lerroan herri hori zein herrialdetan dagoen idatziko dute, mapan kontsultatu ondoren. **(5')**

Feedbacka

- Ikasleek argazki oinak irakurriko dituzte. **(5')**

⁹ *Sorginen Laratza*.  1352

Zuzenketa-orria

IZENA	HERRIALDEA
Aurora	Nafarroa
Bixente	Lapurdi
Miren	Gipuzkoa
Julen	Bizkaia

Atazaostea

- Binaka jarrita, ikasle bakoitzak bera bizi den inguruko herrien izenak (bost edo sei) idatziko ditu papertxo batean eta ikaskideari emango dio, ea mapan aurkitzen dituen. **(5')**
- Aurkitu ondoren, ozenki irakurriko ditu denen aurrean. Guk ahoskeran arreta berezia jarriko dugu eta, behar izanez gero, errepikatzeko eskatuko diogu. **(5')**

2

Atazaurrea

- Ikasleek beren liburuan duten munduko mapan kontinenteak euskaraz nola diren ezagutuko dute. **(5')**
- Euskal Herrikoak ez diren hainbat pertsonen aurkezpenak irakurriko dituzte argazkien azpian. **(2')**
- Osatu gabe dauden aurkezpenetan, ikasleek pertsonaiaren herrialdea zein kontinentetan dagoen idatziko dute. **(3')**

Zuzenketa-orria

IZENA	KONTINENTEA
Alfredo	Hegoamerika
Isabela	Europa
Hego Korea	Asia

Ataza

- Ikasle bakoitzak liburuan duen mapan kokatuko du bere jaioterrria gezi baten bidez. Eta liburuan daukan laukian nongoa den eta herrialde hori non dagoen idatziko du. **(5')**

Feedbacka

- Ikasleek jatorria galdetuko diote elkarri, ikaslearen liburuan azaltzen diren *Nongoa zara?* eta *Non dago zure herria?* galderak erabiliz. **(5')**

IRAK. LIB. 4.2.
IK. LIB. 4.2.
Herrien izenak landu nahi izanez gero,
jo ezazu izen bereko atazara.

3. Eranskinak

1. BIDEO-PASARTEAK

A ATAZA: ONGI ETORRI EUSKAL HERRIRA!

1. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.03.45

HABEk egindako erreportajea

B ATAZA: IZENAK

2. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.00.33

Aurkezpenak

— Patxi / Martin.

— Ni Graxi naiz.

— Petra Garro? Petra Garro, mesedez? Zu zara? Bai, ni naiz.

3. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.00.27

Kaixo!

— Kaixo, ni Olatz naiz. Ongi etorri Euskal Herrira!

— Kaixo, ni Nerea naiz. Ongi etorri Euskal Herrira!

— Kaixo, ni Jon naiz. Ongi etorri Euskal Herrira!

— Kaixo, ni Leire naiz. Ongi etorri Euskal Herrira!

— Kaixo, ni Gorka naiz. Ongi etorri Euskal Herrira!

— Kaixo, ni Eneko naiz. Ongi etorri Euskal Herrira!

4. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.01.05

Dantzariak

MARTIN Nortzuk zarete zuek?

— Ni Xanti Gartzia naiz.

— Ni Mikel Zabala.

— Ni Jon Garai naiz.

MARTIN Eta zuek, nortzuk zarete zuek?

— Gu Martxelo eta Xabi Ugarte gara.

MARTIN Gu Xanti eta Martin gara.

PATXI Nortzuk dira dantzari horiek?

GRAXI Dantzari horiek Martxelo Ugarte eta Jon Garai dira.

PATXI Eta haiek, nortzuk dira dantzari haiek?

GRAXI Dantzari haiek Mikel Zabala eta Xabi Ugarte dira. Eta hauek nortzuk dira?

PATXI Horiek Martin eta zu zarete.

C ATAZA: AGURRAK

5. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.01.38

Agurrak

- Kaixo!
- Zer moduz?
- Agur!
- Gero arte!
- Bihar arte!

6. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.01.07

Eguneko agurrak

- Egun on! Iepa! Aupa!
- Gabon! Egun on! Arratsalde on!
- Arratsalde on!
- Gabon!

7. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.00.59

Erantzungailua

ERANTZUNGAILUA Kaixo! Momentu honetan ezin dut zurekin hitz egin. Utzi zure mezua.
GORKA Egun on! Gorka naiz. Gero deituko dut. Bueno, agur!

ERANTZUNGAILUA Kaixo! Momentu honetan ezin dut zurekin hitz egin. Utzi zure mezua.
MIREN Arratsalde on! Miren naiz. Nahi al duzu kafe bat hartu gauen? Deitu,
e! Gero arte!

ERANTZUNGAILUA Kaixo! Momentu honetan ezin dut zurekin hitz egin. Utzi zure mezua.
ENEKO Kaixo! Eneko naiz. Zer moduz oporretan? Bihar deituko dizut eta hitz
egingo dugu. Adio!

ERANTZUNGAILUA Kaixo! Momentu honetan ezin dut zurekin hitz egin. Utzi zure mezua.
MAIDER Gabon! Maider naiz. Bihar arratsaldean zinera gonbidatzeko deitzen
dizut. Agur!

8. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.02.25

Erreginaren bisita

D ATAZA: JATORRIAK

9. BIDEO-PASARTEA

Iraupena: 00.00.18

Etorkin euskaldunak

X. EUSKITZE Gai honetaz hitz egiteko, gurekin ditugu... —Ea ondo ahoskatzen ditudan hiru izenak!— Najat Kaanache, Shadid-Raza Mehasi eta Kadim Fall.

4. Material osagarriak

B ATAZA: IZENAK

1. IKASLEEN ZERRENDA

20'

Helburua:

- Euskal abizenak eta hauen erabilera ezagutzea.

Zertan den:

- Ikastaro bateko ikasleen zerrendan izen bakoitzari dagozkion abizenak aurkitu beharko dituzte.

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ikasleei azalduko diezu Euskal Herrian bi abizen (aitarena eta amarena) erabiltzen direla eta, eguneroko bizitzan bakarra erabiltzen bada ere, administrazio kontuetan biak erabili behar izaten dira. Galdetu ea horrela den beren herrialdeetan.

Ataza

- Ikasleen liburuan dagoen ikasle-zerrendatik izenak nahasian aukeratu eta ozenki irakurriko dituzu. Aldi berean, ikasleek izen bakoitzari zein abizen dagozkion aurkitu eta ozenki esango dituzte.

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA
ENEKO	ALVAREZ	OTXOTORENA
JOSU	SANTAMARIA	GARMENDIA
GORKA	GOIKOETXEA	AGIRRE
LEIRE	ZABALA	BERGARETXE
MIKEL	AGINALDE	TXAPARTEGI
ARANTXA	JAUREGI	MENDIZABAL
AINITZE	GOMEZ	DANBORENEA
IÑAKI	LASA	MUJIKA
LOREA	ELOLA	ETXABE
JOKIN	IRURETAGOiena	AIERBE
IRENE	GORROTXATEGI	PARDO
IKER	GUERRERO	ALKIZA

D ATAZA: JATORRIA

2. HERRIEN IZENAK

20'

Helburua:

- Euskal Herriko herrien izenak eta gaztelaniazko ordainak ezagutzea.

Zertan den:

- Euskal Herriko herri esanguratsuenen euskarazko eta gaztelaniazko izenak ikusiko dituzte ikasleek. Ondoren, ezagutzen dituztenen ezaugarri nagusia ematen saiatuko dira: itsasoaren ondoan dagoen, menditsua den, laua...

PROZEDURA:

1

Atazaurrea

- Ikasleei azalduko diegu Euskal Herriko hainbat herri izen desberdina dutela euskaraz eta gazteleraz. Herri esanguratsuenen adibideak liburuan dituzte: Donostia/San Sebastián eta Vitoria/Gasteiz. **(5')**

Ataza

- Ikaslearen liburua herrien zerrenda izango dute, euskaraz eta gaztelaniaz. Binaka jarrita, ezagutzen dituzten herriak markatzea izango da ikasleen lana eta herri bakoitza zein ezaugarriekin lotzen duten idatziko dute. Herriren bat inork ezagutzen ez badute, Euskal Herriko mapan kontsultatuko dute, edo zuk zeuk azalduko diezu. **(10')**

Feedbacka

- Bikote bakoitzak zein herri ezagutzen dituen eta zein ezaugarriekin lotuko lukeen azalduko du. **(5')**

EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)
Sabin Zabala (HABEko teknikaria)
Partehartzaileak: **Ainhoa Gaintza** (Planiker)
Belen Benitez (Planiker)
Errealizazio didaktikoa: **Felix Sainz** (HABEko teknikaria)

HABE Erakundeak eskerrak ematen dizkio Planiker enpresari materialgintza-
-proiektu honetan parte hartzeagatik.

Gure esker ona ondoren aipatzen diren hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako.

Aurkezpenak. *BAI HORIXE!*

Dantzariak. *BAI HORIXE!*

Agurrak. *BAI HORIXE!*

Eguneko agurrak. *BAI HORIXE!*

Erreginaren bisita. *Mr. Bean*. EITB. DB 691

Lau Haizetara. EITB

Sorginen Laratza. EITB. DB 1352